

Kaixo, ZAPlagun maitea!!! Nola daramazu konfinamendua etxean? Hau bai paradoxa bitxia... Itotzen gaituen sistema hau aldatu nahian bizitza osoa daramagu, lorpen handirik gabe, eta ustekabean agertzen da zomorrotxo mikroskopiko bat, makineria kapitalista osoa di-da batean geldiarazteko gai izan dena!!! Baina ez gaitzen engaina. Gezurra da krisi honek guztioi berdin eragiten digula sinetsarazi nahi diguten ideia. Egoera ez da berdina elite politiko eta ekonomikoentzat, klase ertainentzat eta klase herrikoientzat; azken hauek prekarizatuak eta sarritan baldintza negargarrietan lan egitera kondenatuak. Eta ahaztu gabe Hegoaldeko herrialde askoren agertokia gurea baino askoz lazarriagoa dela. Herrialde horietan urtero hiltzen dela, sendagarriak diren gaixotasunez, koronabirusaren ondorioz hiltzen dena baino askoz jende gehiago...

Nire ustez akats bat izango litzateke eskubideak galtzea onartzea, salbuespenezko neurri batengatik bada ere, edota krisi mota hau erregimen diktatorial baten pean hobeto kudeatuko zela pentsatzea. Eta beldurraren birusak zer bihur gaitzakeen pentsatzeak beldurra ematen dit...

Egungo osasun larrialdia gizateria kudeatzeko modu berriak saiatzeko laborategizat hartzen ari dira, aplikazio teknologikoen bidez; aurpegi-identifikazioa eta telefonia mugikorraren bidezko banakoen jarraipena erabiliz... eta, hori nahikoa ez balitz, beti dute armadaren aukera.

Guk, ordea, egoera ohiko politika, ordezkariaren logika eta alderdien jokoak aztertzeko eta desmuntatzeko baliatu behar dugu. Gero eta agerikoagoa egiten zaigu geure bizitzaren gidaritza hartu behar dugula, estatuko erakundeetan delegatzeak ez duelako ezer bermatzen, ez enplegua, ez ongizatea, ez segurtasuna, ezta osasuna ere. Hau dela eta, konfinamenduan egon arren, elkartasuna eta enpatia landu behar dugu. Eutsi diezaiogun borroka-espirituari, guardia jaitsi gabe, hau bukatzean autogestioa hedatzeko, birus bat balitz bezala, eta kapitalaren, merkatuaren eta haren miserien aurrean, gune autonomo desmerkantilizatuak eta despatriarkalizatuak zabaltzeko. Autogestioaz, benetako demokraziaz eta elkarrekiko laguntzaz sinesten dugunon artean lortu dezakegu ... Ah, eta dagoeneko eskuak behar bezala garbitzen ikasi dugunez, ez ditzagun gorputzeko beste atalak alde batera utzi... izan ere, hau amaitzen denean, **HORTZAK ERAKUTSI BEHAR DIZKIEGU!!!**

